

PASAIA / Donibane kultura. Liburutegiak aurrera egiteko baliabide eske Bibliotekaren Aldeko Batzordeak zenbait gabeziri aurre egiteko eskatu dio Udalari

U. Etxebeste

Donibaneko Bibliotekaren Aldeko Batzordekoek zenbait eskakizun betetzeko eskatu diote Udalari Itsas Mendi liburutegiak aurrera egin dezan. Giza baliabideetan eta onura teknikoetan kokatu dituzte eskakizun horiek. Lehen bi asteetan 200 bazkide lortu zituen liburutegiak. Baina hauen guztien beharrak asetzeko oraindik behar bezalako azpiegiturarik ez dagoela iritzi diote Bibliotekaren Aldeko Batzordekoek. Pasaia Udaleko Kultur Batzordean adostutakoa bete gabe dago, esan dute. Zehatz-mehatz, bete gabeko alorrak lau direla nabarmendu dute: Liburutegia hornitzen jarraitzeko asignazio berezia, liburuzaina lanordu osoz, lehengo materiala berrerabiliz bertako atala sortzea eta Absys programa duten ordenagailuak. Eskaera hauek Udalari egin dizkiotela jakitera eman dute Batzordekoek: Udalaren aldetik dauden diru zailtasunak gainditzeko joango direla erantzun digute.

Hartara, azken udalbatzarrean hartutako erabaki bati erreparatu diote Bibliotekaren Aldeko Batzordekoek: Batzuen aldeko eta besteen abstentzioa medio, bertako politikarientzako ordenagailuak erosteko erabaki zuten. Neurri hori ez zaie egokia iruditu Batzordekoari: Gure ustetan herritarren onurarako Pasaia toki publikoetan (Kultur Etxeak, Liburutegiak kokatu beharko litzateke, eta ez gutxi batzuen eskuetan, guztion poltsikoaren kontu.